

3. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Azaroak: 25, 27 Abenduak: 2, 4	IKASGELA/ TOKIA	28. gela. IVAP Eusko Jaurlaritza Donostia-Sansebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
IRAUPENA	8 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:00
MATRIKULA EPEA	Azaroaren 7ra arte	ONIRITZI EPEA	Azaroaren 14ra arte
IKASLE KOPURUA	8 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. C-1 mailako azterketa prestatzea helburu dutenak. Derrigorrezkoa da B-2 maila izatea.
IRAKASLEA		MATERIALA	

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	3.HEko ahozkoak sortzen trebatzea. Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea
HELBURU ZEHATZAK	Azterketaren aurkezpena egitea. IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jartotasuna, aberastasuna, zuzentasuna. Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea. Komunigaitasuna zer den azaltzea. Jartotasunaz berba egitea. Aberastanaren gaineko argibide batzuk ematea. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu, aholkuak ematea.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 3.HEko ahozkoak sortu behar dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

3. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Bakarka edo binaka egingo da lan.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

Lau egunetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Eta jarraian, ahozko azterketaren entseguak egingo dira.

Bikote batzuek bakarkako saioa egingo dute, eta beste batzuek elkarreraginaren ariketa. Bikote bakoitzak bukatu eta gero, ikaskideek iritzia emango dute (gai/ez gai, zergatik, zer alde on izan dituen, zer eta nola hobetu ahal duen), eta irakasleak ere bere ikuspuntua emango du.

PROGRAMA

Bikoteak txandakatzen joango dira, ikasle guztiek bakarkako saioak eta elkarreraginarenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, horrela eginda, eta egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek izan dituzten alderdi positiboak indartzeko eta txarto egin dituzten puntuak hobetzen saiatzeko parada izango dute.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketan** ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze-inkesta
- Irakaslearen balorazio-inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

114 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.